

2020

**Pobreziaren aurkako nazioarteko eguna – urriak 17
PROPOSAMENAK**

Pobrezia eta giza bazterketaren
aurkako europar sarea Euskadin

Red europea de lucha contra la pobreza
y la exclusión social en Euskadi

European anti poverty network
in the Basque Country



1.- ZERGATIK HARTZEN DUGU GOGOAN URRIAREN 17A?

Zergatik Pobreziaren Nazioarteko Egun bat?

Pobrezia desagerrarazteko Munduko Egunak 1987ko urriaren 17an dauka jatorria. Egun horretan, ehun mila pertsona baino gehiago elkartu ziren Trocadero plazan, Parisen, bertan sinatu baitzen 1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Topaketa horren bidez, pobrezia, indarkeria eta gosea jasaten duten pertsonak gogoan hartu nahi izan zituzten. Bertan bildutakoek adierazi zuten pobrezia giza eskubideen urraketa bat dela eta pertsona horiekiko errespetua bermatzeko ahaleginak bildu beharra aldarrikatu zuten. Printzipio horiek egun hartan aurkitutako oroimenezko lauza batean inskribatuta daude. Mundu osoan egin dira horren kopiak, eta Nazio Batuen New Yorkeko egoitzaren lorategian ere badago bat. Ordutik, jatorri sozial, sinesmen eta egoera guztietako pertsonak urtero biltzen dira plaka horien aurrean, pobrezian bizi direnen aldeko konpromisoa eta elkartasuna berresteko.

Beraz, urriaren 17a pobrezian bizi diren pertsonen ahalegina eta borroka aitortzeko aukera bat da. Pertsona horien arazoak ikusarazteko eta pobreziaren aurkako borrokan protagonista bihurtzeko daitezke.

Pertsona pobretuen parte-hartze osoa lehentasunezkoa izan behar da politika eta estrategien barruan, bereziki beren bizitza eta komunitateei dagozkien erabakietan, etorkizun iraunkorra izateko.

Horrela izanik, bermatu dezakegu gure planetak eta gure egungo eta etorkizuneko gizarteek pertsona guztien beharrez eta nahiei erantzuneko dietela, ez soilik pribilegiatu batzuek dituztenei.

Beraz, bereziki egokia da gaia -Nazio Batuen Erakundeak aukeratua, pobrezia egoeran bizi direnei eta gizarte zibileko erakundeei galdetu ostean- ideia honekin bat etortzea: pertsona guztiok bat egin behar dugu pobrezia eta diskriminazioa desagerrarazteko, etorkizun iraunkor bat eraikitzeko, egungo beharrez guztiak estaltzeko, betiere, etorkizuneko belaunaldien aukerak konprometituta utzi gabe.

[47/196 ebazpenaren](#) bidez, Batzorde Orokorrak Estatu guztiei dei egin zien, egun horretan, pobrezia eta etxegabetasuna desagerrarazteko xedea duten jarduerak aurkeztu eta sustatzeko, nazio mailan. Ebazpen horren bidez, gobernu arteko eta gobernu kanpoko erakundeei ere dei egin zaie, estatu mailan laguntza eman dezaten, estatuak eurek hala eskatzen dutenean, egun hori gogoan hartzeko jarduerak antolatu daitezken, eta Idazkari Nagusiak egun hori arrakastaz gogoan hartzeko neurriak har ditzan.

2.- ZERGATIK ALDARRIKATZEN DU EAPN SAREAK POBREZIAREN AURKAKO BORROKAREN NAZIOARTEKO EGUNA?

EAPN Euskadin urtero aldarrikatzen dugu pobreziaren aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna, hori delako gure egitekoa eta bokazioa, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako Sarea garen heinean, eta Euskadin ere ekitaldi bat antolatzen dugu.

EAPN Euskadiren helburuak:

- Pobrezia eta gizarte-bazterkeria egoerak ikusaraztea.
- Pobrezia eta gizarte-bazterkeria egoeretan esperientzia izan duten pertsonen beren zalantza eta kezka proposatzen uztea, pobreziaren aurkako borroka eraginkorra izate aldera.
- Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko neurriak aldarrikatzea, eta euskal erakundeek konpromiso argi bat hartzea.

Pobreziaren 2020ko Nazioarteko Egunean, inoiz baino konbentzituago gaude POBREZIA DESAGERRARAZTEKO konponbideak bilatzea AUKERA POLITIKOA DELA.

Europar Batzordeko presidentek Europar Batasunaren egoerari buruzko bere lehenengo diskurtsoa eman zuen irailean, eta onartu zuen antsietate handiko garaia izaten ari direla milioika

pertsonarentzat. Jendea bere senideen osasunagatik eta beren lanbideen etorkizunagatik kezkatua dago, edo, are okerrago, hilabete amaierara nola helduko diren ez dakitelako.

Horrela izanik, 2021erako aurrekontuetan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun saileko Pedro Azpiazuk adierazi zuen politika publikoetan ez dela murrizketarik aurreikusten. Esan zuen austeritatea ez dela bidea izango, eta gure ongizate estatua sendotzeko beharraz hitz egin zuen, krisiek sortzen dituzten desberdintasun egoerak arintzeko.

Baina COVID-19aren ondoriozko krisiaren aurretik ere, arazo batzuk antzematen ari ginen gizarte eskubideen inguruan, gure lurraldean. Krisiak are gehiago ikusarazi ditu arazo horiek, eta antzeman gabeko beste batzuk agertu dira. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen inguruko Euskadiko Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen azken Inkestaren datuen arabera (EPDS 2018):

- Emakumeak dira pobrezia errearen kasuen % 55.
- Emakumea buru duten guraso bakarreko familiek pobreziaren % 30a jaso dute.
- 172.307 pertsona (herritarren % 8) bizi ziren pobrezia egoera larrian (541,27 eurotik behera hilean).
- 484.571 pertsona (herritarren % 22,4) bizi zen ongizaterik gabe egoteko arriskuan (hilean 811,90 euro baino gutxiagorekin).
- 2.000 pertsonak ez zeukaten etxerik.

Gainera, COVID-19aren krisia gogor eragiten ari da haur, nerabe eta familien bizitzetan, batez ere babesgabetasun handiengan bizi ziren horiengan. Beraz, haurren eskubideetan oinarritutako estrategiak erabili behar dira erantzun bat emateko. Pandemia egoerak pobrezia eta desberdintasun sozialak areagotzeko arriskua dauka. Litekeena da 2008ko krisiak baino ondorio latzagoak izatea.

3.- ZER ESKATZEN DUGU?

Azken urteetan hainbat proposamen planteatu dira euskal gizarte bidezko eta inklusiboagoa sortzeko. Gaur, EAEko desberdintasun-mailak murrizteko, pobreziaren kontra lan egiteko eta pertsona guztiok bereziki, aurretik ere babesgabetasun egoeran egon direnak eta daudenak- babesteko sistema sendotu, hobetu eta eguneratzeko politika bat lortzeko kontuan hartu beharreko aspektuetan zentratu nahi dugu.

Hauek dira Pobreziaren aurkako 2020ko Nazioarteko Egunerako proposamenak:

- **Gizarte babeserako sistema sendoa behar dugu, ezustekoetarako prestatua.** Sistema sendotua, diseinu eta plangintzan bertan krisi eta larrialdietarako planak txertatuta dituena:
 - Konfinamenduan eta horren ostean emandako **erantzunak mantentzea**, krisiak kaltetutako pertsonen prestazioak eta laguntzak bermatzeko: Laguntza ekonomikoak, etxegabetze-prozesuak etetea, aholkularitza-eremuak sortzea, seme-alabak dituzten familientzako babes emozionala (guraso bakarrek familiak bereziki kontuan hartuz).
 - **Plangintza egonkor bat izatea, krisi eta larrialdi kasuetarako protokolo integratuekin...** aurreko hilabeteetan hasitako ekintzak babes sozialeko sistemaren hazia izan daitezela.
 - **Haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko** sistema sendoa izan behar da.
- **Digitalizazio masiboa** garatzen ari da, baina **arrakala digitala** ere gero eta handiagoa da (baita gizarte babesaren sistemarako ere), eta horrek desberdintasun gehiago sortzen ditu. **Gizarte zerbitzuen aurrez aurreko arreta berreskuratzea funtsezkoa** eta beharrezkoa dela uste dugu, segurtasun-neurriak bermatuz, noski, beharra duten pertsona guztiak artatzeko.
- **Politika guztiak elkar erlazionatu behar dira, pertsona guztien eskubide sozialak bermatzeko** (diru-sarrerak bermatzeko politikak, politika fiskalak, etxebizitza politikak, enplegu inklusiborako politikak, haurtzaro eta familia planak, zerbitzu sozialen legea eta zorroaren garapena...).
 - Aurretik **koordinazio horren plangintza** ezartzea, sail eta erakunde bakoitzaren funtzioak, erantzukizunak, edukiak eta helburuak markatzea.
 - Euskadiko babes sozialerako sistemak eta pobreziaren aurkako politikek **genero ikuspegia eta haurtzaro ikuspegia txertatu** behar dituzte.
- **Babes sozialerako sistemak eta pobreziaren aurkako borroak behar dutena:**
 - **Emakume babesgabeen inklusio-prozesuetarako erantzun egokiak eskaintzeko konpromisoa eta inplikazioa.** Egoera zehatzak aztertze baliabideak eta aurrekontua hornitu behar dira, kasu bakoitzerako erantzun egokiak emateko.
 - **Desberdintasun egoeretan emakumeek gizonetikiko duten desabantaila kontuan hartzen duen ikuspegia txertatzea.** Hori izango da eskubideak eta gutxieneko diru-sarrerak berdintasunez bermatzeko modu bakarra.
 - **Arlo guztietako zaintza lanekiko kontziliazioa bermatzea**, baita gizarteratze-prozesuetan ere. Gainera, zaintza-lanen garrantzia aitortu behar da. Kasu askotan, emakumeek egiten duten lana da, ordaindu gabea, eta horrek desberdintasunaren arrakala are handiago egiten du.
- Momentu ona izan daiteke **gizarte zerbitzuak birpentsatu eta berrantolatze**ko, **aspektu eta emaitzak aztertuta:**
 - Erantzun eta emaitzen azterketa;

- Alarma egoeran eta konfinamenduan, eta horren ostean antzemandako errealitate berriak aztertzea;
 - Pertsonengan zentratutako sistema malguak ezartzea, beti eskubideen izenean;
 - Etengabeko ebaluazio eta eragin sistemak ezartzea (arazoak antzeman eta konponbide-protokoloak ezartzea).
- **Etxebizitza arloari** dagokionez, Euskadin etxebizitza-bazterkeria egoeran dauden pertsonen zifrak oso kezagarriak dira. Eusko Jaurlaritzak **Euskadin etxegabetasuna desagerrarazteko estrategia** bat dauka, baina ATXIKIMENDU ASKEKOA da, eta EZ DAUKA AURREKONTURIK, beraz, etxegabetasuna desagerrarazteko helburu hori asmo hutsetan geratuko da. Gure ustez, beharrezkoa da:
 - Arreta eta sentsibilizazio bereziz tratatzea emakumeen babesgabetasun egoera;
 - Euskal Administrazio osoa barne hartuko duen Estrategia Global bat lantzea.
 - Jarduerak burutu ahal izateko aurrekontu bat hornitzea.
- **Gutxieneko Diru-sarrerak eta Gizarteratzea bermatzeko sistemari dagokionez**, zera gaineratu nahi dugu: Aurreko urteetan hasitako Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Gizarteratzeari buruzko legearen erreforma; eta egungo prestazioak gutxieneko errentak bermatzeko euskal sistema batean txertatzea.
 - Legearen erreformari dagokionez, 2017 eta 2019ko agerraldietan nabarmendutako gai horiek gaur egun indarrean jarraitzen dutela uste dugu:
 - Uste dugu **beharrezkoa eta urgentea dela pertsona babesgabeenei gutxieneko diru-sarrerak eta gizarteratze-prozesua bermatzea**.
 - Uste dugu garrantzitsua dela eskubide bikoitzetik bi eskubideren bermera igarotzea: **Diru-sarrerak bermatzeko eskubidea eta Gizarteratze eskubidea**.
 - Legearen diseinuan **genero-ikuspegia** hartu behar da kontuan, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunerako 4/2005 Legearen 18. Artikulutik 20, artikulura bitartean adierazten denaren arabera, eta Istanbulko Hitzarmenaren arabera egokitu, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkerien aurkako Europako Kontseiluaren Hitzarmena.
 - **Haurren interes gorenaren ikuspegia** ere txertatu behar da, Haurren Eskubideen inguruko Nazio Batuen Erakundearen Adierazpenean ezarritako moduan, eta ARARTEKOAK ere hala gogorarazi zigun 2015ean. Gainera, **garrantzitsua da 18 urte betetzean gure babes-sistematik kanpo geratzen diren adingabeak kontuan izatea**, eta gazteen emantzipazio-prozesuetan laguntzea.
 - Pobrezia eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen **gizarte zerbitzuak eskuratu eta bizirauteko baliabide nahikoak izateko irizpide berriak errebisatu** behar dira, Eskubide Unibertsalen Adierazpenean ezarrita dagoen moduan.
 - 2019an aurkeztutako lege proposamenean **“elkarbizitza unitateari”** emandako kontzeptualizazioa berriz planteatu behar da, izan ere, ez da kontuan hartzen gaur egun euskal gizartean dagoen elkarbizitza errealitatea (ez dira beti lotura afektiboak edo bestelako loturak izaten). Gaur egun jende askok dauka etxebizitza partekatu beharra, eta, horren ondorioz, babes-sistematik kanpora geratzen dira milaka elkarbizitza-unitate.
 - **Prestazioen kopuruak errebisatu** behar dira, eta azken urteetan egindako murrizketak kendu (lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera ez aplikatzea eta % 7ko murrizketa), pertsonen benetan pobreziatik irten ahal izateko.

Adierazle egonkor bat proposatu beharko litzateke, pobreziatik irteteko nahikoa, eta bizitza-mailaren arabera errebisatu daitekeena.

- **GARRANTZITSUA** da pertsona guztiontzako **istema argia, irisgarria eta ulergarria** izatea, bereziki, sistema erabili behar dutenentzat.
- **Kolektibo babesgabeenak eta baliabideak eskuratzeko aukera gutxien** dauzkatena izan behar dira kontuan.

- **Gutxieneko errenten sistemari eta etorkizunera begirako plangintzari dagokionez:**
 - **Akordioak lortu** behar dira, eta estatu mailako gutxieneko errenta sistemak eta erkidego mailakoa **osagarriak** izatea.
 - Ezaugarri horiek dituzten sistemen bidez, **diru-sarrerak bermatzeko sistemen unibertsalizazioa** lortuko dugu.
 - Hala behar duten **persona guztientzako irisgarria** izan behar da; izapideak sinpletu egin behar dira (kudeaketa bateratua, leihatila bakarra).

- Azkenik, **puntu garrantzitsuenetako bat**, uste dugu inoiz baino garrantzitsuagoak direla **aporofobiaren aurkako** sentsibilizazio kanpainak.